

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARTZINIEGAKO UDALA

2021eko zergak eta tasak ordaintzeko borondatezko epea

Nik, Artziniegako Udaleko alkate Joseba Vivanco Retesek,
jakinarazten dut:

2021eko urriaren 20tik abenduaren 20ra bitarteko egun baliodunetan, biak barne, ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean, udal zerga, tasa eta prezio publikoen 2021eko ordainagiriak.

Eragindako zergadunek udalaren gordailuzaintzan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, bulego orduetan, epe horretan.

Halaber, zergadunei gogorarazten zaie banku entitate edo aurrezki kutxetan helbideratuta egin ahal izango dutela ordainketa.

Aipatutako epea bukatutakoan, premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, indarrean dagoen Dirubiltetarako Arautegi Orokorrean ezarritako xedapenen arabera.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Artziniega, 2021eko irailaren 30a

Alkatea

JOSEBA VIVANCO RETES